Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko urriaren 13a, ostirala — 198 — Viernes, a 13 de octubre de 2023

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA

*Urriaren 6ko 567/2023 Foru Agindua, xedatzen duena onartzea Gipuzkoako Boluntariotza Sariaren 2023ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak, 2023ko irailaren 20an egindako batzarraldian, Gipuzkoako Boluntariotzaren Saria emateko oinarri arautzaileak onetsi zituen.

Oinarri arautzaile horiek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren, 189. zenbakian, 2023ko irailaren 29an, eta egun horretan hasi ziren ondorioak izaten.

Horrenbestez, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 40.2.f) artikuluaren arabera, Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatu honek,

XEDATZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea Gipuzkoako Boluntariotza Sariaren 2023ko deialdia. Foru agindu honen eranskin gisa doa.

*Bigarren.* Baimentzea eta xedatzea 2.500 euroko gastua, 1-0301.010.781.00.02-2023 aurrekontu partidaren kargura, sariaren zuzkidura ekonomikoari aurre egiteko. Zuzkidura hori bideratuko da erakundeak bere proiektua garatzeko erabiliko duen ekipamendua edo material informatikoa erostera.

*Hirugarren.* Foru Agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkeztu diezaiokete foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Denen jakinerako argitaratzen da hau.

Donostia, 2023ko urriaren 6a.—Imanole I. Eizmendi Galarza, idazkari teknikoa. (7549)

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE CUIDADOS Y POLÍTICAS SOCIALES

*Orden Foral 567/2023, de 6 de octubre, por la que se dispone aprobar la convocatoria del Premio al Voluntariado Guipuzcoano 2023.*

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 20 de septiembre de 2023, aprobó las bases reguladoras del Premio al Voluntariado Guipuzcoano de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Estas bases reguladoras fueron publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa número 189, de 29 de septiembre de 2023, día en el que comenzaron a surtir efectos.

Consecuentemente, y en virtud de las competencias conferidas en el art. 40.2.f) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, esta diputada foral del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales,

DISPONE

*Primero.* Aprobar la convocatoria del Premio al Voluntariado Guipuzcoano 2023, que se acompaña como anexo a la presente orden foral.

*Segundo.* Autorizar y disponer un gasto de 2.500 euros, con cargo a la partida presupuestaria 1-0301.010.781.00.02-2023, para hacer frente a la dotación económica del premio, cuyo destino será la compra de equipamientos varios o materiales informáticos para que la entidad premiada pueda destinarlos al desarrollo de su proyecto.

*Tercero.* Ordenar la publicación de la presente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta Diputada Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 6 de octubre de 2023.—La secretaria técnica, Imanole I. Eizmendi Galarza. (7549)

EK\CV GAO-I-2023-07549

ERANSKINA

*Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoako Boluntariotzaren Sariaren 2023ko deialdia.*

*1. Sariaren oinarri arautzaileak eta xedea.*

Gipuzkoako Boluntariotzaren Saria arautzen duten oinarriak Diputatuen Kontseiluaren 2023ko irailaren 20ko erabakiaren bidez onartutakoak dira, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2023ko irailaren 29an (189. zk.). Beraz, deialdi honetan garatu ez den edozein alderdiri dagokionez, Saria arautzen duten oinarrietan xedatutakoa kontsultatu beharko da.

Gipuzkoako Boluntariotzaren Sariaren helburua da jendaurrean aitortzea, boluntarioekin eta boluntariotzaz, ikuspegi sozial, humanitario eta/edo solidariotik komunitateari zerbitzua emateko bokazioz jarduten duten eta interes orokorreko programetan, baztertutako taldeei laguntzen eta/edo jarraian zehazten diren arloak sustatzen nabarmendu diren pertsonek nahiz gizarte erakundeek egindako ibilbidea: berdintasuna, giza eskubideak, osasuna, gizarteratzea, kultura, kirola, babes zibila, gazteria, ingurumenaren babesa edo garapenerako lankidetza.

Sari honek aipatzen duen boluntariotza kontzeptua, 1998ko ekainaren 25eko 17/1998 Legeak, Boluntarioei buruzkoak, 2. artikuluan definitzen duena da.

Sariak modalitate bakarra dauka; eta pertsona fisikoek nahiz juridikoek eskuratu ahal izango dute.

*2. Sariaren finantzaketa, dotazioa eta xedea.*

Saria honakoa da: saria eman dela egiaztatzen duen ziurtagiri edo diploma bat, oroigarri enblematiko bat, eta 2.500 euro, 1-0301.010.781.00.02-2023 partida zenbakiaren kargura, saritutako erakundeak bere proiektua garatzeko erabiliko duen ekipamendua edo material informatikoa erosteko bideratuko dena.

Saria pertsona fisiko bati badagokio, laguntza ematen dion erakundeari itzuli beharko dio diru-zuzkidura.

*3. Hautagaiak eta beharkizunak.*

Erakunde eskatzaileek oinarri arautzaileen 3. oinarrian araultzailean jasotako baldintzak bete beharko dituzte.

*4. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

Sari honetara lehenengo oinarrian zerrendatutako sektoreetan diharduten irabazi asmorik gabeko erakundeak aurkeztu ahal izango dira, baita Gipuzkoako Lurralde Historikoko erakundeak eta pertsona fisikoak ere.

Epaimahaiak sarirako aurkeztutako hautagaien ibilbidea baloratu ahal izan dezan, proposamenekin batera hautagaiaren merituak ere aurkeztu beharko dira. Era berean, hautagai bat sarirako aurkezteko edo aurkezpenari abala emateko entitateak hartutako erabakiaren egiaztagiria ere erantsi beharko da. Hautagaitzei beste entitate batzuen abalak gehitu ahal izango zaizkie. Proposatutako hautagaia pertsona fisikoa bada, haren adostasuna eta lan egiten duen edo egin duen entitatearena ere beharrezkoak izango dira.

Hautagaitzan ez dira abaltzat hartzen, ez pertsona fisikoen laguntzak, ezta sinadura-bilketak ere. Irabazi asmoa duten enpresen abalak ere ez dira baliozkoak izango.

Erakundeen sarirako autohautagaitzak onartuko dira, baldin eta gutxienez hiru gizarte-eragilek (entitateak, erakundeak, ikastetxeak, erabiltzaileak, etab.) abalatuta badaude.

Pertsona fisikoek ezingo dute beren hautagaitza aurkeztu.

ANEXO

*Convocatoria de 2023 del Premio al Voluntariado Guipuzcoano de la Diputación Foral de Gipuzkoa.*

*1. Bases reguladoras y objeto del premio.*

Las bases reguladoras del Premio al Voluntariado Guipuzcoano son las aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 20 de septiembre de 2023 y publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 29 de septiembre de 2023, número 189. De manera que para cualquier aspecto que no se haya desarrollado en la presente convocatoria habrá de consultarse lo dispuesto en las bases reguladoras del Premio.

El Premio al Voluntariado Guipuzcoano tiene como objeto reconocer públicamente la trayectoria de personas o entidades sociales de y con voluntariado que se hayan distinguido por su vocación y servicio a la comunidad desde una perspectiva social, humanitaria y/o solidaria; y que hayan venido participando en programas de interés general, de apoyo a grupos desfavorecidos y/o de promoción de la igualdad, los derechos humanos, la salud, la inserción social, la cultura, el deporte, la protección civil, la juventud, la protección del medio ambiente o la cooperación para el desarrollo.

El concepto de voluntariado al que se refiere el presente premio es el definido por el artículo 2 de la Ley 17/1998, de 25 de junio, del Voluntariado.

El premio tiene una única modalidad y a la misma podrán concurrir tanto personas físicas como jurídicas.

*2. Financiación, dotación y destino del premio.*

El premio consiste en un certificado o diploma acreditativo de su concesión y en un objeto emblemático conmemorativo, así como en una dotación de 2.500 euros, con cargo a la partida presupuestaria 1-0301.010.781.00.02-2023, cuyo destino será la compra de equipamientos varios o materiales informáticos para que la entidad premiada pueda destinarlos al desarrollo de su proyecto.

En el caso de que el premio correspondiera a una persona física, la dotación económica deberá revertirla en la entidad con la que colabora.

*3. Candidaturas y requisitos de obligado cumplimiento.*

Las entidades solicitantes deberán cumplir los requisitos establecidos en la base 3.ª de las bases reguladoras.

*4. Forma, plazo y lugar de presentación de las candidaturas.*

Podrán presentar candidaturas a este premio las entidades sin ánimo de lucro que desarrollen su actividad en los sectores enumerados en la base primera, así como las Instituciones y personas físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

A fin de que el jurado pueda valorar la trayectoria de las candidaturas presentadas al premio, las proposiciones deberán ir acompañadas de los méritos que concurren en las mismas. También se incorporará la acreditación del acuerdo de la entidad para presentar al premio una determinada candidatura o para avalarla. Podrán añadirse los avales de otras entidades a las candidaturas. Si la candidatura propuesta es una persona física, deberá constar su conformidad y la de la entidad en la que desarrolla o haya desarrollado su actividad.

No se consideran avales a las candidaturas ni el apoyo de personas físicas ni las recopilaciones de firmas. Los avales de empresas con ánimo de lucro tampoco serán válidos.

Las autocandidaturas de entidades al premio serán aceptadas siempre y cuando vengan avaladas por un mínimo de tres agentes sociales (entidades, instituciones, centros escolares, personas usuarias etc.).

Las personas físicas no podrán presentar su autocandidatura.

EK\CV GAO-I-2023-07549

Sariaren deialdia Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean (www.gipuzkoa.eus) eta Gizalde proiektuaren webgunean (www.gizalde.eus) argitaratuko da, eta, era berean, zabalkunde handiagoa lortzeko, Gipuzkoan egoitza duten irabazi asmorik gabeko erakundeei sariaren informazio guztia bidaliko zaie posta elektroniko bidez.

Hautagaitzak ezarritako ereduaren arabera prestatu eta aurkeztuko dira, eta eredu hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean (www.gipuzkoa.eus) eta Gizalde proiektuaren webgunean (www.gizalde.eus) deskargatzeko aukera egongo da. Hautagaitzak eredu horretan finkatutako egiturara eta hedadura egokitu beharko dira.

Hautagaitzak aurkezteko epea 10 lanegunekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hautagaitzak Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentuari zuzenduko zaizkio, eta Departamentuaren Erregistro Orokorrean (Zarategi, 99 –Txara II eraikina– 20015 Donostia), Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistro Zentralean (Gipuzkoa, z/g - 20004 Donostia), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein bidetatik aurkeztu ahal izango dira.

Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak eta https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/tramiteen-zerrenda) eskuragarri dagoen erregistro elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango dira.

Hautagaitzak aurkezteko ezarritako epea amaitu ondoren gutxienez bost hautagai ez badaude, Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentuak, Gizalderi kontsulta egin ondoren, beharrezkoak eta egokiak diren hautagaitzak proposatuko ditu, gutxieneko kopuru horretara iritsi arte.

5. *Hautagaien ebaluazioa.*

Hautagaiak aurkezteko epea amaitutakoan, eta epaimahaia eratu aurretik, Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuak egiaztatuko du betekizun guztiak betetzen dituztela; eta hautagaiak aurkeztu dituzten entitateei jakinaraziko die beren hautagaia onartua izan den ala ez.

Aldi berean, Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuak behar diren izapideak burutuko ditu epaimahaia eratzeko, oinarri arautzaileen 5. oinarrian zehaztutako irizpideetan oinarrituta.

Epaimahaia eratutakoan, banan-banan aztertuko ditu onartutako hautagaitza guztiak. Gero, oinarri arautzaileen 7. oinarrian azaldutako balorazio irizpideen arabera eztabaidatu ondoren, saria emateko proposamena egingo du, saria entregatzeko aurreikusitako eguna baino 10 egutegi-egun lehenago gutxienez. Epaimahaiak isilpean gordeko ditu aurkeztutako hautagaitzak, izandako eztabaidak eta saria emateko proposamena.

Saria hutsik deklaratzea eta inori ere ez ematea proposatu ahal izango du epaimahaiak: ikusten badu aurkeztutako hautagaietako batek ere ez daukala saria jasotzeko behar den adinako meriturik.

Berdinketarik gertatuz gero, mahaiburuak izango du kalitatezko botoa.

6. *Baloratzeko irizpideak.*

Aurkeztutako hautagaien merituak baloratzeko, alderdi hauek izango ditu kontuan epaimahaiak: konpromiso sozial eta solidarioaren maila; jardueran etenik gabe daraman denbora; gizarte proiekzio positiboa eta egindako lanaren balioa; eta egoki deritzon beste irizpideren bat ere gehitu ahal izango du.

7. *Eskaerei buruzko erabakia hartzea eta jakinaraztea.*

La convocatoria del premio se publicitará en las página web de la Diputación Foral de Gipuzkoa (www.gipuzkoa.eus), así como en la web del proyecto Gizalde (www.gizalde.eus) y, a su vez, y con el fin de conseguir una mayor difusión, se remitirá toda la información de la misma a las entidades sin ánimo de lucro con sede en Gipuzkoa por medio de un correo electrónico.

Las candidaturas se prepararán y presentarán según el modelo establecido y descargable en la página web de la Diputación Foral de Gipuzkoa (www.gipuzkoa.eus), así como en la página web del proyecto Gizalde (www.gizalde.eus), y deberán ceñirse a la estructura y extensión previstas en dicho modelo.

El plazo de presentación de las candidaturas será de 10 días hábiles, a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Las candidaturas se dirigirán al Departamento de Cuidados y Políticas Sociales, y podrán presentarse en el Registro General del Departamento (Ps. Zarategi, 99 –Edificio Txara II– 20015 San Sebastián), en el Registro Central de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Pz. Gipuzkoa, s/n - 20004 San Sebastián), o por cualquiera de los medios previstos en el art. 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Asimismo, se podrán presentar a través del Registro Electrónico disponible en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/subvenciones y https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/listado-tramites).

En el caso de que una vez finalizado el plazo fijado para la presentación de las candidaturas no existiera un mínimo de cinco candidaturas, el Departamento de Cuidados y Políticas Sociales, previa consulta a Gizalde, propondrá las candidaturas necesarias y pertinentes hasta alcanzar mínimo ese número.

5. *Evaluación de las candidaturas.*

Finalizado el plazo para la presentación de candidaturas, y previo a la constitución del jurado, el Departamento de Cuidados y Políticas Sociales verificará el cumplimiento de los requisitos y notificará a las entidades que han presentado candidatura la aceptación o denegación de la misma.

Paralelamente, el Departamento de Cuidados y Políticas Sociales realizará las gestiones necesarias para la constitución del jurado en base a los criterios determinados en la base 5.ª de las bases reguladoras.

Constituido el jurado, éste analizará individualmente las candidaturas aceptadas. Tras la deliberación oportuna en base a los criterios de valoración expuestos en la base 7.ª de las bases reguladoras, formulará una propuesta de concesión con una antelación mínima de 10 días naturales a la fecha prevista para la entrega del premio. El jurado mantendrá el secreto de las candidaturas presentadas, de las deliberaciones que se produzcan y de la propuesta de concesión.

El jurado podrá proponer declarar desierto el premio, si considera que ninguna de las candidaturas presentadas acredita un mínimo de méritos suficiente para recibirlo.

En caso de empate, la presidencia ostentará el voto de calidad.

6. *Criterios de valoración.*

El jurado valorará los méritos de las candidaturas presentadas en relación con los aspectos siguientes: nivel de compromiso social y solidario, tiempo en el que de manera continuada ha venido desarrollando la actividad, proyección social positiva y valor de la actuación realizada; pudiendo añadir algún otro que considere oportuno.

7. *Resolución de la concesión del premio y notificación.*

EK\CV GAO-I-2023-07549

2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, saria ematearen ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la concesión del premio será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2023-07549